

Independentzia eta negoziaketa eskatu zituen Gilles Perraultek

Errefuxiatuen Egunean parte hartu zuen frantziar idazleak igandean

Perrault idazlearen hitzek Ezpeletako elkartasun eguna markatu zuten igandean, Euskal Herriaren independentziaren alde agertu zelarik eta negoziaketa bat gomendatu zuen lehenbailehen. Txomin Arranbidek eta Sustengu Komiteek euskal preso politikoen amnistia eta aterabide politiko negoziatuaren beharra eskatu zituzten berriro. Aurten askatutako presoek omenaldi berezi bat egin zieten.

L. ETXEZARRETA / BAIONA

«Euskaldunen borrokarekin nere elkartasuna ekartzera eta errefuxiatuei ene sustengua agertzeko etorri naiz» erran zigun Gille Perrault idazle frantziarrak «jakin dezaten, edozein izanik ere Gobernu frantziarrak haien aurkako errepresioa, badirela Frantzia errepresio ahalkegarri hori kondenatzen dutenak».

Jendeak idazlearen hitzaldi sutsua txalotu zuen. Madrilan iragan 'Bake Konferentzia' baten beharra aldarrikatu zuen iaz Denis Langloisek, leku berean egin zuen bezala. «Denbora irabaz dezagun negoziatuz aterabide zentzudunak bilatuz».

Gogor salatu zuen Mendebaleko hipokresia: «txaloa daude hainbat herrien independentziari euskaldunen errebindikapenen inguruan isiltasuna atxikiz, denentzat eskubide zilegia balitz bezala, euskaldunentzat ezik». Frantzia eta Espainiako 'informazio eza' salatu zuen «gartzelan sartu baino lehen, terrorista irudiaren barruan preso sartzen zaituzte».

Mila lagun bildu ziren Errefuxiatuen Egunean

L.E. / BAIONA

Arratsaldeko mitin politikoa, eguerdiko bazkaria eta arratseko musikaldiaren artean, Errefuxiatuen Egunean une nagusia izan zen. Ezpeletako ezkerreko jendea seigarren aldiz bildu zen, preso eta errefuxiatuei beren elkartasuna agertzeko, Gureak eta Errefuxiatu eta Presoen Sustengu Komitekoen deia jarraituz. Eguerdin 500 bazkari baturatu ziren eta bostak aldera hirian mila bat lagun ziren Mattin Karreren aurkezpen hitzak entzuteko.

Txomin Arranbide urepeldarrak hitza hartu zuen lehenik 'muga apurtzale' modura aurkeztu ondoren. «Atxik eta Gora Euskal Herria» erranez bukatu zuen bere hitzaldia, euskal nortasuna gogotsiz, preso eta borrokalariak sustengatzea eskatuz «bakea lortu arte».

Aitor Iturriño Gureak, preso eta etxeko elkarteak, Terexa EPSK-koak mintzatu ziren beren



Gilles Perrault, idazle frantziarra.

L.E.

✓ «Abertzale batzuen bortizkeria historia luze batean sartzen da, eta botereek errealtatea ukatu nahi dutelakoan, bortizkeria hori beharrezko bilakatu da».

Bortizkeriaz hitzegitean zioen «abertzale batzuen bortizkeria historia luze batetan sartzen da, errealtatea ukatu nahi dutelakoan botereek, bortizkeria hori beharrezkoa bilakatu da». Bera egondako Aljeriako gerra maiz aipatu zuen: «FLNen mila bider handiago zen bortizkeriari berena altxatu zuten. Zazpi urte iragan ziren nabari zena lortzeko, Aljeria aljeriarrena zela!, eta zenbat itxaron egin beharko da euskal burujabetasuna onartu arte?».

«1944ko urtarrilean, Isère eskualdeko Voiron-en erresistente batzuek miliziako burua hil zuten, baina baita emaztea, 3 haurrak, bat seaskan ze-

larik eta aiton amonak ere. Alemanek jarritako karteletan haur hilen irudiak jasanezinak ziren. Baina horrek erran nahi al zuen alemanen okupazioa eta kolaborazioa zilegi zirela? Erresistentzia horregatik kondenagarri zena? Nortzuk ziren erantzuleak? zioen gertakaria kontatuz. «Eseri behar da eta negoziatu, ezin besteko bortizkeria geldiarazteko» erran zuen. Perraultek hitzaldia bukatu zuen «inposatzen dizueten gerra ankerrean garaipena determinazio eta iraupenak egingen dute. Irabaziko duena da ordu laurden bat gehiago iraunen duena. Ziur naiz atxekiko duzuela ordu laurden bat gehiago!».



Gilles Perrault Ezpeletan izan zen hizlari.

L.E.

lanen berri emanez eta Pariseko gartzeletara urte bukaeran egingo den bidaiara deituz. Amnistia eta negoziaketa politikoaren beharra aipatu zuten. Preso eta errefuxiatuei omenaldi bat egin zitzaion, eta aurten askatu batzuk taula gainera etorri ziren txapela handi bat jantziz jendeen txaloen artean.

Gari Arriaga, Amnistiaren Aldeko

Batzordeetako ordezkariak Gobernu frantziarra gogor gaitzetsi zuen, bere «portaera poliziala eta Espainiarekiko kolaborazioagatik». Bake Konferentzia baten beharra aipatu zuen, erakutsiz ere «Frantziak bakearen giltzak dauzkala». Bukatzean zioen «anartean gure esku daude amnistia, errefuxiatuen estatutua eta erbesteratuen itzulera lortzea».



Bandresen barne krisia bukatutzat eman zuen.

TXABARRI

Auñamendiko 52 kide kaleratu ditu EEko zuzendaritza ofizialak

F.I. / GASTEIZ

Euskadiko Ezkerrako Gipuzkoa-ko exekutibako partaideak, Auñamendi sektoreak aukeratutako Biltzar Tipi osoa eta lau ahaldunduak alderditik egotzi zituen sektore ofizialeko zuzendaritzak. Pasa den larunbatean, Durangon bildu ziren isilean Juan Maria Bandres eta Jon Larinagaren aldeko Biltzar Tipiko partaideak eta aho batez onartu zuten Auñamendikoak egozte. Halaber, datorren urteko urtarilak 25 ezohizko kongresua egitea erabaki zuten.

Alderdi horien arautegiaren aurka jo dute Auñamendikoek zatiketaren prozesua hasi zenetik, Juan Maria Bandres EEko lehendakariaren iritziz, eta horregatik kaleratu dituztela adierazi zuen atzo Gasteizen, Durangoko bileraren berri ematerakoan. Dena den, sektore ofizialak Durangon egindako bilerak ere arautegia ez zuela errespetatu onartu zuten. «Arautegikoak baino irizpide politikoak izan ditugu kontuan» esan zuen Bandresen.

Ofizialistek ez dute jadanik ezer jakin nahi Auñamendikoekin. Bandresen esanetan gauza bakar baterako daude hitzegiteko prest, haus-

turaren gainean akordioa lortzeko, hain zuzen ere. Esan zuenez, gonbidapen hori egin diote Kepa Aulestiak burutzen duen sektoreari, nahiz eta oraindik erantzunik jaso ez duten. «Ez dago atzera jotzerik» esan zuen zuzendaritza ofizialeko lehendakariak.

Egozketak zehazteko, prentsan azaldutako izenak aintzat hartu dituztela adierazi zuten Xabier Markiegi eta Bandresen. Zuzendaritza ofizialak ez du Auñamendik aukeratu duen Biltzar Tipiaren partaideen berri izan, eta horregatik prentsako datuen arabera egin dituzte egozketak. «Orain ikusten bada kaleratutako norbait ez dela Auñamendiko BT-ko partaide atzera joko dugu» esan zuten. Egotzitakoen artean 26 gipuzkoarrak dira. Horien artean Xabier Gurrutxaga, Patxi Baztarrika eta Martin Auzmendi. Bizkaitarren aldetik Kepa Aulestia eta Igone Arteagabeitia parlamentariak nabarmen izan dira. Koldo Martinez eta Beni Agerrea nafarrak zorte bera izan dute, Pablo Ruiz de Gordejuela eta Luis Sanzo arabarrak bezalaxe. Kalera-tutako guztiak 30 eguneko epea dute berma batzordearen aurrean nahi dituzten alegazioak aurkezteko.

Europako batasuna aztertu du HBk joan den asteburu honetan

BILBO

Europako batasun proiektuaren inguruko gaiak eta arazoak aztertu zituen HBk joan den asteburu honetan burututako ihardunaldietan. Integrazio prozesuaren egoeraz gain, horrek Euskal Herrian izango dituen eraginak ere aztertu zituzten partaideak.

Atzo igorritako ohar baten bidez, HBk azaldu zuen batasun ekonomikoaren proiektuaren eta batasun politikoaren ikuspegiaren azterketak agerian utzi dituela «Estatuen arteko enfrontamenduen areagotzea».

HBren esanetan, gatazka horien eragileetako batzuek nazioarteko gertakizunak izan dira, hala nola «Eki eta Erdi Europako nazioetan nazionalismoa berpiztea, Estatu Batuen jokabideak Europako batasunak bere aintzidaritzari egiten dion mehatxuagatik eta OTANen barneko kontraesanak asmo europarrarekin».

Alderdi horren arabera, horiek guztiak batuta «ezengokortasuna» ekarri diote Europari, eta ondorioz «Estatuko Batasun ereduaren krisiak eman dira, neurri handi batean geldiaraziz», oharra dioenez.

HBk kritikatu egin zuen nazioarteko ordena berrian ematen den «politika ekonomiko neoliberala» eta eritzi zion eredu sozialdemokrata «ezgai» dela «eraikuntza europar berraketa orekatua eta zuzena garatzeko neurriei aurre egiteko».

Nazio subiranotasunean oinarritutako eredu alternatiboak aztertu ondoren, gizartearen partehartze handiagoa proposatu zuen HBren ihardunaldietan, «gaur egun dagoen euroburokrazia» gainditzeko.

Azkenik, arbuia egin zen Europa «bloke imperialista» bihurtzea, eta aitzitik «gizartearen garapenean ahu-lezia eta arazo gehien daukaten herriekin» elkartasunera jotzea proposatu zuten ihardunaldi horietako partaideak.